

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DUTEN ERAGILEEK EUSKARA IKASTEKO EDO HOBETZEKO BEKEN DEIALDIA

CURSO 2017-2018 IKASTURTEA

CONVOCATORIA DE BECAS PARA EL APRENDIZAJE O LA MEJORA DEL EUSKERA PARA AQUELLOS AGENTES QUE AYUDAN A PROMOCIONAR EL USO DE LA LENGUA

HITZAURREA

Euskal hiztun berriak sortzea eta euskal hiztunen artean erabilera esparruak zabaldu eta indartzeko xedearekin Irungo Udalak 2006 urteaz geroztik, urtero egiten du euskararen erabilera sustatzen duten eragileek euskara ikasteko edo hobetzeko beken deialdia.

2015-2019rako Udal gobernu programan "IRUNEN ALDEKO ITUNA" euskararen erabilera normalizatzeko bidean lan egingo dela eta euskara doan ikasteko programak bultzatuko direla adierazten da.

Oinarri hauek Gobernu programan jasotakoa garatzera datoz.

1. Artikulua- Araubide juridikoa.

Deialdi hau ondoko xedapenek eraentzen dute:

- Ordenantza Orokorra, Irungo Udalak deialdi bidezko diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituena. (GAO 124 zenbakia, 2017-06-29)
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzko Orokorra (03/11/18BOE).
- 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra.

PREÁMBULO

El Ayuntamiento de Irun en su compromiso de conseguir nuevos hablantes y expandir y potenciar los ámbitos de uso del euskera, desde el 2006, realiza anualmente una convocatoria de becas para el aprendizaje o la mejora del euskera para aquellos agentes que ayudan a promocionar el uso de la lengua.

En el programa municipal de gobierno para el periodo 2015-2019, "UN PACTO POR IRUN", se recoge como objetivo trabajar en la normalización del uso del euskera y fomentar los programas de formación en euskera gratuitos.

Estas bases vienen a cumplir ese objetivo

Artículo 1º.- Régimen jurídico.

La presente convocatoria se rige por las siguientes disposiciones:

- Ordenanza General Reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Irun (BOG número 124 de 29-06-2017)
- Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18/11/03).
- Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, General de Subvenciones (BOE 25/07/06).

2. Artikulua- Xedea eta zenbatekoa

Deialdi honen xedea da euskararen erabilera sustatzen duten eragileei beken kontzesioa norgehiagoka arautzea.

Beketarako aurreikusitako zenbatekoa 65.064,04 eurokoa da. 1. 1010.480.99.335.30.2018 aurrekontu aplikazioari egotziko zaizkio.

Deialdian ezarritako kopuru hau handitu daiteke, gastatu gabeko aurrekontu baliabideen arabera, beste laguntzen gauzatzearen ondorioz gelditu daitezkeenak, horiek ebatzi aurretik.

Deialdian jaso dira oinarri arautzaileak Azaroaren 17ko 38/2003 Legeren 23.2 artikulua a) letran aurreikusitako salbuespenaren babesean, izan ere sari eta beken oinarri arautzaile berezituak deialdian bertan sartu daitezke

3. Artikulua.- Eskatzaileak

Bekak eskatu ahal izateko hauetako kasu batean egon behar da:

1. 2017-2018 ikasturtean (2017ko urritik 2018ko irailera) zehar, Irunen HABEk homologatutako euskaltegietako batean euskalduntze taldeetan matrikulatuta.
2. 2017-2018 ikasturtean zehar Irunen eskaintzen ez den erritmo batean HABEk homologatutako euskalduntze taldeetan matrikulatuta (2017ko urritik 2018ko irailera).
3. 2017-2018 ikasturtean (2017ko urritik 2018ko irailera) zehar xede berezietarako taldeetan arituta (euskaltegietako talde berezietan matrikulatutakoak, unibertsitateek udan euskaraz antolatzen dituzten ikastaroetan izena emandakoak eta euskarazko aisi edo kirol ikastaroetan matrikulatutakoak).

Artículo 2º.- Objeto y dotación

Es objeto de la presente convocatoria regular la concesión de becas mediante concurrencia competitiva destinadas al aprendizaje o a la mejora del euskera para aquellos agentes que ayudan a promocionar el uso de la lengua.

La dotación económica prevista para las becas es de 65.064,04 euros, imputables a la aplicación presupuestaria siguiente: 1 1010.480.99.335.30.2018.

El importe fijado en esta convocatoria podrá ser incrementado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otras líneas de subvención, con carácter previo a la resolución de las mismas.

En esta convocatoria se han incluido las bases reguladoras específicas al amparo de la salvedad prevista en la letra a) del artículo 23.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 3º.- Solicitantes

Podrán solicitar las becas todos aquellas y aquellos interesados/as que estén en alguno de los siguientes casos:

1. Personas matriculadas en grupos de euskaldunización, en alguno de los euskaltegis de Irun homologados por HABE durante el curso 2017-2018 (de octubre de 2017 a septiembre de 2018).
2. Personas matriculadas durante el curso 2017-2018 (de octubre de 2017 a septiembre de 2018) fuera de Irun en grupos de euskaldunización homologados por HABE, que estudien en un ritmo que no se oferte en Irun.
3. Personas matriculadas durante el curso 2017-2018 (de octubre de 2017 a septiembre de 2018) en grupos de carácter especial (grupos especiales de los euskaltegis, cursos de verano de las universidades que se impartan en euskera, cursos de Tiempo Libre o deporte en euskera).

4. Artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Beka hauek emateko eta emailea eta erakunde onuraduna elkarki lotuko dituen harreman juridikoa finkatzeko, deialdi hau, oinarri berezi hauek eta beka ematen direnean, indarrean dauden arauak bete beharko dira.

Aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuak hura garatzeko onartutako Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

Deialdi honetan arautzen diren beken onuradunek ezin dute izan Subentzioak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeek, ezta ere sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenean otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5. Artikulua. Onuradunak

Ezingo dute bekarik jaso baldin eta Gizarte Segurantzaren, Foru Ogasunaren eta Irungo Udalarekin dituzten zorrenatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa behera utzita gotea.

Herri administrazioek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunari beka eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

Artículo 4º. Normativa aplicable

La concesión de estas becas y la relación jurídica entre la instancia otorgante y la entidad beneficiaria se regirá por las presente convocatoria, estas bases específicas y demás normativa vigente en el momento de su concesión

En todo lo no previsto se aplicará la Ley 38/2003 General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

No podrán obtener la condición de beneficiarias de las becas reguladas en esta convocatoria las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, ni quienes se hallen incurso en prohibición legal o inhabilitación por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

Artículo 5º. Beneficiarios /as

No podrá concederse becas a los que se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Irun, Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social el Ayuntamiento de Irun, ni aquellos que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

La concesión y, en su caso, el pago de la beca quedará condicionada a la finalización de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración Pública, se halle todavía en tramitación

6. Artikulua.- Diruz laguntzen dena

Beka hauen bitartez, euskara eskolak, udako unibertsitateetako euskaraz diren ikastaroak bai eta euskarazko aisi edo kirol ikastaroak ere diruz laguntzen dira.

7. Artikulua. Deialdiak

Beka hauen Deialdiaren laburpena GAO n argitaratuko da Diru-Laguntzen Datu-Base Nazionalaren (BDSN) bitartez, behin Irungo Udalak azken honen aurrean deialdiaren testua eta argitaratzeko beharrezkoa den informazioa eman eta gero.

8. Artikulua.- Eskarien aurkezpena

Bekak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdien bitartez.

Eskariak internetez egingo dira SAC24h zerbitzuaren bitartez (www.irun.org/sac). Horretarako epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2018ko urriaren 4ra artekoa izango da, azken hau barne. Nahi izanez gero, HAZeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2) ere egin ahalko dira eskariak egunero 8:00etatik 22:00etara. IRUN TXARTELA edo beste ziurtagiri elektronikoko batzuk erabiliz (NA elektronikoa, IZENPE txartela..) egin beharko dira eskariak.

Eskariarekin batera ez da dokumentaziorik aurkeztu beharko. Irungo Udalak ofizioz egiaztatuko ditu bekaren onuradun izateko baldintzak. Horretarako eskatzaileen baimena eskatu eta beharrezkoa den hitzarmena egingo da, hala badagokio.

Interesatuak egin duten ikastaroko eskari bat aurkeztu beharko dute.

Artículo 6º. Gastos subvencionables

Mediante estas becas se subvencionan los cursos de euskera, cursos de verano en euskera de las universidades, así como cursos de Tiempo Libre o deporte en euskera.

Artículo 7º. Convocatorias

El extracto de esta convocatoria de becas se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) una vez el Ayuntamiento de Irun haya presentado ante ésta el texto de la misma y la información requerida para su publicación

Artículo 8º.- Presentación de solicitudes

El procedimiento para la concesión de becas se iniciará de oficio mediante la convocatoria que será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes se efectuarán por internet a través del servicio SAC24h (www.irun.org/sac). El plazo para ello va desde la publicación de la convocatoria hasta 4 de octubre de 2018, inclusive. También podrán efectuarse las solicitudes en las terminales de autoservicio del SAC (C/ San Marcial, 2) todos los días de 8:00 a 22:00, utilizando para ello la IRUN TXARTELA u otros certificados electrónicos (DNI electrónico, tarjeta IZENPE...).

No será necesario presentar documentación junto con la solicitud. El Ayuntamiento de Irun comprobará de oficio los requisitos necesarios para ser beneficiario de la beca, para lo cual se precisará de autorización de cada uno de los solicitantes y de la suscripción del oportuno convenio si procede.

Las y los interesados deberán hacer una solicitud por cada curso realizado.

9. Artikulua.- Bekak esleitzeko irizpideak

Bekaren zenbatekoa matrikula gastuen %100 izatera irits liteke 2017-2018 ikasturtean (2017ko urritik 2018ko irailera) HABEK homologatutako euskaltegi batean matrikulatuta egon diren lagunentzat. Edozein kasutan, eskatzaileak egindako ikastaroek bat egingo balute denboran eta ordutegian, bakarra lagunduko da diruz, kostu txikiena duena, hain zuzen.

10. Artikulua .- Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Euskara ikasteko edo hobetzeko bekak jaso ahal izateko eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Irunen erroldatuta egotea 2017ko irailaren 1a baino lehen.
- b) 2017-2018 ikasturte barruan (2017ko urritik 2018ko irailera) 16 urte edo gehiago betetzea.
- c) Oinarri hauetako hirugarren atalean aipaturiko taldeetako batean aritzea.
- d) Euskalduntze ikas-prozesuan, gutxienez HEOCean adierazten diren euskalduntzeko azpimaila bat gainditzea, 165 orduetik beherako ikastaroetan izan ezik. Honakoak kontuan hartuko dira:
 - A0-B1 bitarteko azpimailak behin bakarrik lagunduko dira diruz.
 - B2-C2 bitarteko azpimailak bi aldiz lagunduko dira
 - Xede berezietako talderen batean aritu diren eskaitzaleen kasuan, dagokion euskaltegiak, udalak, mankomunitateak, aisi eskolak edo ikastaroaren antolatzaileak betetako ziurtagiri originala aurkeztu beharko da.

Artículo 9º.- Criterios para la adjudicación de las becas

La beca podrá cubrir, el 100 % de los gastos de matrícula a las personas que durante el curso 2017-2018 (de octubre de 2017 a septiembre de 2018) hayan estado matriculadas en un euskaltegi homologado por HABE. En cualquier caso, si los cursos realizados por el/la solicitante coincidieran en tiempo y horario, solo se subvencionará uno, el de menor coste.

Artículo 10º.- Obligaciones de los beneficiarios

Los beneficiarios de las becas para aprender o mejorar el euskera tienen las siguientes obligaciones:

- a) Estar empadronado en Irun antes del 1 de septiembre de 2017.
- b) Que durante el curso 2017-2018 (de octubre de 2017 a septiembre de 2018) cumpla al menos 16 años.
- c) Estar en alguno de los casos del tercer apartado de estas Bases.
- d) Superar como mínimo subnivel de euskaldunización según el HEOC, excepto en los casos de que el curso realizado haya sido de menos de 165 horas. Además se tendrá en cuenta lo siguiente:
 - Los subniveles A0-B1 se subvencionarán solo una vez.
 - Entre los niveles B2-C2 los subniveles podrán ser subvencionados como máximo, dos veces.
 - En el caso de los/las solicitantes de beca hayan realizado un curso de carácter especial, tendrán que presentar un certificado original emitido por el euskaltegi, ayuntamiento, mancomunidad, escuela de Tiempo Libre u organizador del curso correspondiente.

Ziurtagiri horretan, egin duen ikastaroaren hasiera eta bukaera datak, eta ordutegiaz gainera, ikastaro osoaren asistentzia-portzentajea, eskatzailearen aprobetxamendua (ikastaroari dagozkion maila-azterketa edo lan guztiak eginak dituen ala ez), eta guztira matrikularengatik pagatu duena zehaztuko da.

En dicho certificado, además de especificarse las fechas de comienzo y de final de curso, el nivel y el horario, se recogerá porcentaje de asistencia durante el curso, el aprovechamiento (si el solicitante ha realizado todas las pruebas de nivel o todos los trabajos durante el curso). Además se indicará la cuantía total que el solicitante ha abonado en concepto de matrícula.

Nolanahi ere, xede berezietako taldeak behin bakarrik diruz lagunduko dira.

En cualquier caso, los cursos de carácter especial solo se subvencionarán cada curso una vez.

- Beti ere, ikaslearen azken bost ikasturteetako ikas-prozesua kontuan hartuta.
 - Kasu guztietan ikasketa prozesua jarraitua denean, aurreko ikasturtean diruz lagundutako urratsa baino baxuagorik ez da lagunduko.
- En todos los casos se tendrán en cuenta el proceso de aprendizaje de los últimos cinco años del alumno/a.
 - Cuando el proceso de aprendizaje es continuo no se subvencionarán los niveles inferiores al nivel subvencionado durante el curso anterior.
- e) Ikastaroa bukatzea, egin beharreko ebaluazio probak egitea eta %85 edo gehiagoko asistentzia erreala izatea ikasturtean, izan ere, nahiz eta faltak justifikatuak izan, asistentzia-falta gisa hartuko dira.
- e) Finalizar el curso, hacer las pruebas de nivel correspondientes y tener una asistencia real igual o superior al 85%, ya que aún siendo justificadas se considerarán como falta de asistencia.
- f) Matrikula ordaindu izana dagokion euskaltegiari nahiz ikastaroaren antolatzaileari.
- f) Haber abonado la matrícula del euskaltegi o del curso correspondiente.
- g) Bekak ebatzi baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko eta Zerga betebeharreran (Foru Ogasuna eta Irungo Udala) egunean egotea.
- g) Estar al corriente en las obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Ayto. Irun) y frente a la Seguridad Social antes de la resolución de las becas.

11. Artikulua. Akatsak zuzentzea

Irungo Udalak ezingo balu bekaren onuradun izateko baldintzaren bat ofizioz egiaztatu, interesatuei hamar eguneko epea emango zaie, eskatzen zaien egunaren hurrengotik hasita, hura zuzen dezaten. Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68. Artikuluak adierazitakoarekin bat ebazpena egin ondoren.

Artículo 11º. Subsanación de defectos

En caso de que el Ayuntamiento de Irun no pueda comprobar de oficio alguno de los requisitos para ser beneficiario de la beca, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al del requerimiento para su subsanación. Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015.

IZAPIDEA

12. Artikulua. Organo-instrukziogilea

Bekak emateko prozedura izapidetzea Euskara Arloko Normalizazio Zerbitzuko arduradunaren eginkizuna da, eta hau izango da, era berean, dirulaguntza hauen organo instrukziogilea. Ebazpen proposamena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko ekintza guztiak burutuko ditu. Beharrezkotzat jotako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, eta txosten horiek hamar egunen barruan igorriko dira.

Organo instrukzio-egileak, ezer baino lehen, laguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

13. Artikulua. Eskarien ebaluazioa

Organo instrukzio-egileak aurkeztutako eskarien ebaluazioa egingo du eta txosten batean jasoko du, eta bertan azalduko dira.

- a) Eskaria egin eta onartutako zerrenda, era berean, ezetsitako eskaerak, eta horretarako arrazoiak.
- b) Aurkeztutako eskarien gaineko ebazpen proposamena, eta honakoak jaso beharko dira:
 - I. Beka emango litzaiekeen eskatzaileen zerrenda.
 - II. Bekaren zenbatekoa.
 - III. Baloratzeko ebaluazioa eta kontuan hartutako irizpideak.

Espedientearen instruktoreak, horren aurrean, erabakitze proposamena egingo du eta behin betikoa izango da prozeduran ez badira ez agertzen eta ez kontuan hartzen interesatuek emandakoak ez diren beste gertaera ezta beste alegazio eta frogarik ere.

INSTRUCCIÓN

Artículo 12º. Órgano gestor de la instrucción

La instrucción del procedimiento de concesión de becas corresponde al Responsable del Servicio de Normalización del Área de Euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución. Podrá solicitar los informes que estime necesarios, los cuales deben ser enviados en un plazo de diez días.

La fase de instrucción se iniciará con la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiario/a.

Artículo 13º. Evaluación de las solicitudes

El órgano instructor realizará una evaluación de las solicitudes presentadas, que se concretará en un informe que reflejará:

- a) La relación de solicitantes admitidos y excluidos del procedimiento por no cumplir, estos últimos, todos los requisitos necesarios para acceder a la subvención.
- b) La propuesta de evaluación sobre las solicitudes presentadas, que tendrá el siguiente contenido:
 - I. La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de beca.
 - II. La cuantía específica de la beca.
 - III. Especificación de la evaluación y los criterios seguidos para efectuarla.

El instructor del expediente, a la vista del mismo, formulará la propuesta de resolución, que tendrá carácter de definitiva cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los y las interesados

14.-Artikulua. Organo-eskumenduna

Beka hauek esleitzeko organo eskuduna Alkate-Lehendakaria izango da edo honen delegazioagatik ardura duen delegatua.

15. Artikulua. Entzuteko tramitea

Hartu beharreko ebazpenaren aurretik, interesatuei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Halakorik egonez gero, aurkeztutako alegazio eta egokitzapenak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo du organo instrukziogileak

Tramitazio hori saihestu ahal izango da prozeduran pertsona interesatuek aurkeztutako egintza edo alegazio eta probak baino ez daudenean, edo horiek baino kontuan hartzen ez direnean. Kasu honetan ebazpena behin betikoa izango da.

16. Artikulua. Ebazpena

Beka hauek esleitzeko organo-eskuduna Alkate-Lehendakaria izango da.

Ebazpenak argi eta garbi adierazi beharko du zein eskatzaileari ematen zaion beka, beka horren zenbatekoa, bai eta eskarien gainean egindako ebaluazioa eta emakida egiteko jarraitutako balorazio irizpideak. Era berean, argi eta garbi azalduko da bekaren jasotzaileak horiek jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztela. Gainera, Ebazpenean argi adieraziko da baztertutako eskarien erlazioa eta honen zergatia.

Ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Hala ere, argi adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko.

Artículo 14º. Órgano Competente

El órgano competente para la resolución de estas becas será el Alcalde-Presidente o el/la delegado/a responsable por delegación de éste.

Artículo 15º. Trámite de audiencia

De modo previo a dictar la resolución correspondiente se otorgará a los interesados trámite de audiencia por plazo de 10 días para formular alegaciones.

Si los interesados/interesadas presentaran alegaciones o adecuaciones, el órgano instructor una vez examinadas aquellas, presentará una propuesta resolución definitiva

Se podrá prescindir de este trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas. En ese caso la propuesta de resolución tendrá el carácter de definitiva.

Artículo 16º. Resolución

El órgano competente para la resolución de estas becas será el Alcalde-Presidente.

En la resolución de concesión de la beca se deberá hacer constar expresamente el solicitante al que se concede la beca, el importe de la misma, la evaluación referente a las solicitudes y demás criterios de valoración tenidos en cuenta para realizar la concesión. Asimismo, se especificará claramente que el/la receptor/a de la beca cumple todos los requisitos exigidos para el otorgamiento de la misma. Además, se hará constar en la Resolución la relación de las solicitudes excluidas y la razón de esta exclusión.

La resolución pone fin a la vía administrativa. No obstante, en la resolución se indicarán con claridad los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos.

Jakinarazpenak bide telematikoz egingo dira: Irargarki-taularen edo web orrialdearen bidez (www.irun.org). Diru-laguntza eskaeran adierazitako kontuan ordaintzen denetik hilabete igarota, eta onuradunak uko egin ez badio, ondorio guztietarako jakinarazita dagoela ulertuko da.

Las notificaciones se efectuarán por vía telemática: Tablón de Anuncios y página web (www.irun.org). Transcurrido un mes desde la realización del pago de la subvención en la cuenta señalada en la solicitud, y no habiendo manifestado el beneficiario o beneficiaria su renuncia a la misma, se entenderá notificado a todos los efectos.

17. Artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Beka hauek ebartziko dira Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera kontatuta sei hilabeteko epean.

Halaber, interesdunei epe honetan jakinaraziko zaie organo-eskudunaren behin-betiko ebazpena. Denbora hori igaro eta berariazko ebazpenaren jakinarazpenik egin ez bada, diru-laguntza eskariak ez direla onartu ulertuko dute eskatzaileek

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bideratzea egingo da lege horretako 21. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera.

18. Artikulua. Ebazpena baliogabetzea edo aldatzea

Ebazpenak baliogabetzeko arrazoiak izango dira administrazio prozedurako legeek aurreikusi dituztenak. Arrazoi horietakoren bat izanez gero ofizioz berrikusiko da kasua, edo bestela, kaltegarritzat joko da eta aurka egingo da administrazio prozedurako legeek diotenaren arabera. Ebazpenak ez dira ofizioz berrikusiko diru-laguntza itzultzeko arrazoiak daudenean.

Era berean, 39/2015 Legearen 109 artikulua diona aplikatuko da egintza ezeztatze eta akatsak zuzentzeko.

Artículo 17º. Plazo de Resolución y notificación

El plazo máximo para resolver es de seis meses a partir del día siguiente de la publicación de esta Convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Asimismo, se notificará a los interesados la resolución definitiva en ese mismo periodo de tiempo. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de 2015, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 21 de la citada ley.

Artículo 18º. Nulidad o anulabilidad de la Resolución

Serán causas de nulidad o anulabilidad de las resoluciones las previstas en la legislación de procedimiento administrativo. Cuando concurra alguna de aquellas causas, el órgano que hubiera concedido la subvención procederá a su revisión de oficio, o en su caso a la declaración de lesividad y ulterior impugnación de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre procedimiento administrativo. No procederá la revisión de oficio de las resoluciones cuando concurren causas de reintegro.

Asimismo, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 109 de la Ley 39/2015 para la revocación de actos y la rectificación de errores.

Beka ematean kontuan izandako baldintza orokorrak laguntzaren helburua betetakotzat jo arren nahiz oinarrietan aldatu ahal izateko aukera berariaz xedatuta duten baldintza bereziak aldatzea, eta, nolana ere den, edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako diru-laguntzaren edo bestelako laguntzaren bat lortzea nahikoa zioa izan daitezke diru-laguntzak emateko Ebazpena aldatzeko.

Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la beca, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, o de aquellas condiciones específicas cuya modificación se haya previsto de forma expresa en las bases y, en todo caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones.

Ondorio horietarako, ebazteko eskumena duen organoak aldatze ebazpena emango du, emandako beken zenbatekoak egokitzeko; legeak agindu bezala, alde biko espedientea izapidetu ondoren.

A dichos efectos el órgano competente para resolver dictará la oportuna resolución de modificación en la que se reajustarán los importes de la beca concedida, previa tramitación del oportuno expediente contradictorio.

19. Artikulua. Beste diru-laguntzekin batera jasotzea

Honako deialdi honetan xedaturiko beka bateragarri izango dira helburu bererako edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatu nazionalak, europarrek edo nazioartekok ematen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortzearekin, hurrengo atalean xedatua ere indarrekoa izango dela.

Artículo 19º. Concurrencia con otras subvenciones

Las ayudas en forma de becas previstas en la presente convocatoria serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

Deialdi honen bidez Udalak emandako beka, berak bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera, eta errekursoekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gaintitu.

El importe de las becas otorgadas por el Ayuntamiento en virtud de esta convocatoria en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la persona física o jurídica beneficiaria.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak hauek bateraezinak izango dira *“Irungo haur eskoletan, haurtzaindegietan eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan matriculaturik dauden umeen gurasoentzat euskara eskolak”* diru-laguntza deialdiarekin.

No obstante lo anterior, la percepción de estas ayudas resulta incompatible con la correspondiente a las ayudas reguladas por las *“Bases de concesión de subvenciones destinadas al aprendizaje y mejora del euskera por parte de los padres y madres de alumnos y alumnas matriculados/as en las escuelas infantiles, guarderías y centros escolares de Irun”*.

20. Artikulua.- Bekaren ordainketa

Beka epe bakarrean ordainduko dira, onuradunek oinarri hauen laugarren atalean aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren eta HABEren (Helduen Euskalduntzerako eta Alfabetatzerako Erakundea) euskara-mailak edo horien baliokideak ikasturtean gainditu dituzten ikasleei ematen zaizkien 2018ko diru-laguntzak esleitu ondoren.

DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

21. Artikulua. Itzultzea

1. 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra eta zehazten duen Arautegietan, nola oinarrietan aurreikusten diren egoeraren bat gertatuz gero, jasotako diru kopurua eta berandutza-interesak eskatu ahal izango dira. Berandutze-interesak kalkulatzeko aintzat hartuko den epea izango da diru-laguntza ordaintzen den momentutik itzultzeko erabakia hartzen den momentura arte.

2. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreretatik hartuko dira, eta beraz, premiamendu bidez eskatu ahal izango dira dirua ez bada erabakitako epearen barruan itzuli.

3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioetan emandako diru-laguntzaren helburua, erabilera edo lorpen ez egokiaren zantzurik ondorioztatuko balitz, espedientean adieraziko dira zantzu horiek, eta beharrezkoak diren zuzentze neurriak hartu ahal izango dira.

OINARRIEN INTERPRETAZIOA

22. artikulua.

Organo-eskuduna den Alkateak, Euskara Ordezkaria fakultatzen du deialdi honetatik kanpora suerta litezkeen zalantza egoera guztien aurrean erabakitzeko, baita une jakin batean beharreko erabakiak hartzeko ere, diru-laguntzen esleipenerako prozesua behar bezalako izan dadin.

Artículo 20º.- Pago de la beca

La beca se hará efectiva en un sólo pago una vez los beneficiarios/as hayan presentado la solicitud y una vez que HABE (Instituto de Euskaldunización y Alfabetización de Adultos) haya adjudicado las ayudas de 2018 a los alumnos y alumnas que han superado las pruebas de nivel.

REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 21º. Reintegro

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en la Ley 38/2003 General de Subvención y su Reglamento de desarrollo, así como en los supuestos contemplados en las bases.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, por lo que podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.

3. Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios, y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.

INTERPRETACIÓN DE LAS BASES

Artículo 22º.

El Alcalde-Presidente, como órgano competente, faculta a la Delegada de Euskera para aclarar cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de esta convocatoria, así como para tomar las decisiones pertinentes, llegado el caso, para garantizar el proceso de adjudicación.

ERREKURTSOAK

23. Artikulua.

Honako deialdi honen aurka berraztertzeo errekurtsua jar daiteke errekurtsu kontentzioso-administratiboa jarri baino lehen, hilabeteko epean, deialdia onartu duen hartarako eskumena duen organoaren aurrean edo zuzenean inpugnatu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

PUBLIZITATEA

24. Artikulua.

Deialdi hau oinarri arautzaile barne, deialdia, eta horien babesean emandako bekak argitaratuko dira www.irun.org udal web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9. artikulua araberan eta Diru-Laguntzen Datu-Base Nazionalean (DDN), aipatutako Legearen 18. eta 20. Artikuluen araberan.

RECURSOS

Artículo 23º.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

PUBLICIDAD

Artículo 24º.

Esta convocatoria, las bases reguladoras incluidas y las becas concedidas al amparo de las mismas serán publicadas en la página web municipal www.irun.org, en el BOG de acuerdo con el art. 9 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), de acuerdo con los artículos 18 y 20 de la citada Ley.